

# BALIO PROPOSAMENA

Gure erlojuak, bezeroen bizitza aldatu dezake; bizitza osasuntsuagoa eta kalitate hobeagoa emanez. *Dagnyo-Watch*, zure alboan mediku bat egongo balitz izango da. Erlojuak, erabiltzailearen glukosa maila adierazten du, eta modu egoki eta erraz batean hura nola orekatu adierazten dizu. Adibidez, glukosa maila behea izanda, *Dagnyo-Watch*-ak, azukrea daukan zerbait jateko esango dizu; hala nola, txokolatea. Eta glukosa maila handia bada, erlojuak adieraziko du zein heziketa fisiko egin behar duen, etxean egin ahal diren ariketa batzuk adieraziz.

Erlojuak zure gorputzaren glukosa maila aldatzen denean eta osasun arriskuan bazaude, emergentzia zerbitzura (112) eta zuk lehenetik aukeratutako kontaktu bati deitzen die eta zure kokapen geografikoa bidaltzen die barneratuta duen GPS-a erabiliz.

Baina erloju hau, kirola egiten aritzen zarenean erabil daitezke, taupadak, erre dituzun gantzak, galdu duzun likidoak, lekutik mugitu behar dituzun kiroletan (korrika, txirrindula, igeria...) adierazten dizu zenbat distantzia igaro duzun, GPS bat baitu. Are gehiago, erloju honek gomendatzen dizu kirola ostean zer egin (luzaketak, zer jan...).

Erlojua, bezeroak diseinatzeko aukera dauka, modelo batzuk jarraituz: kutxa; forma (borobila, laua), uhalen koloreak eta formak, bestek beste. Horrez gain, jasotako informazioa zure sakelako telefonora edota ordenagailu pertsonalera bidaltzen du *Dagnyo-Watch* App aplikazioa erabiliz.

Laburbilduz, gure produktua erloju digital berezi bat izango da, zeinek glukosa maila neurtuko duen eta hau erregulatzeko ekintza ugari proposatuko dituen, jendea laguntzeko.

Kirola eta osasuna bat egin duen erlojua da, non segurtasuna ematen dion bezeroari glukosa aldaketa baten aurrean.



